

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/6/15 | 366

🌀	Tolosaldea Zero Zabor eta Txomin Garmendia
🌀	Bigarrenkoz Mintzalaguna bikaintzat ikusia
🌀	San Joanak eskualdean
🌀	Zintzilik: Auzo-laguntza
🌀	<i>The Romanticos</i> taldearen lehen diskoa, <i>My Time</i>

Baserri-paisaia,  
eskualdeko altxorra

🌀 Josu Iztueta eta Nagore Salaberriarekin solasean



EKAINAK 17

10:30 - 11:00 Musika eta eskulanak  
11:00 - 11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots  
11:30 - 12:00 Bertsolariak, antzerkia, musika...  
12:00 - 12:30 Mosaikoan kokatzea

12.30etan  
**Mosaiko erraldoia**  
DONOSTIA - SAGUES

Zatoz!  
Aurrez eskuratu  
zure kartulina!



**Euskal Herrian ihesi**

**Osa dezagun guztion artean geure gida sarean**

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen? Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarek bertara joateko egun berezirik gomendatzen al dute? Hurbil diezaiozun elkarri Euskal Herria

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko ihesi erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak, egiteko lekua, zure iragarria 0,50 €-tik aurrera...

**Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa**

ihesi.com

argia praktikua

**NUTRIZIO AHOLKULARITZA OSASUN ZENTROA**

**DIETA PERSONALIZATUAK OBESITATEA**

**NUTRIZIO BERREZIKETA**

**ARIKETA FISIKOA HELDUAK ETA HAURRAK**

**KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2º ESKUBIA 20400 TOLOSA**

**ALDEZ AURREKO HITZORDUA 679 934 888**

**AMAIA ETXETXIPIA**

"BIOLOGIAN" lizentziatua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomaturatua

**SUPER EKO**

**SUPERMERKATUA**

Oinezkoen eremua Erosketak etxera eramateko zerbitzua

Zumalakarregi, 4 943 65 09 01 Tolosa

**ESKATZEN DIOZUNEAN 4X4**

**CITROEN C4 AIRCROSS 18.800€-TIK HASITA**

Beli hau atzeman eta iragarriaz gogoratzen izan zaitez lehena.

KONTSUMO MISTOA (l/100km) / CO<sub>2</sub> EMISIOA (g/km):  
CITROEN C4 AIRCROSS: 4,6 - 5,9/119 -147

\*Gomendok: Citroen C4 Aircross 1.6i Stop&Start ZWD Attraction (erregai, garraio, lehergarria eta Renova Flota berri). Berri jarduera berriak beharrezkoak, 3 hilabetetan zehar erabiltzeko 8000€ko zeharo erantsa dela. 5.000€ko kapital erantsaren bitartez eta 36 hilabeteko erantsaren bitartez. Hilabete bakoari erantsa PSA Finantza berri bitartez. Modurak: Citroen C4 Aircross Hdi 150 bhp Stop&Start 4x4i. Erabiltzeko, erantsa erantsa erantsa. Konturatu www.citroen.es webgunean.

**IROVI S.A. CITROEN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G TEL: 943 651 842 ANOETA/TOLOSA**

non<sub>er</sub>

**galtzaundi**

Euskarara Taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 5.000 ale  
Lege gordailua: SS-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**TOLOSAKO UDALA**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa**

**kutxa gizarte**

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



**Erreportaia: Tolosaldeko baserri-paisaia balioan jartzeko unea**

Tolosaldea eskualdetik kanpo ezaguna izatearen arrazoiak bat, azaltzen duen baserri-paisaia da. Hala ere, baserri-paisaiaren egungo egoera mendeetan zehar baserriarrek egindako lanaren ordaina dela ahaztu ohi da. Tolomendiren ekimenez, eskualdeko baserri-paisaia balioan jartzeko unea iritsi da. Iker Karrera adituak datuak mahai gaineratu ditu.

8-11. orrialdeak

Bidaia bat antolatzerakoan espezializatutako aldizkariak, gidak,... lagungarri izaten ditugu. Internet-eko bilatzaileei esker, informazio ugari -lo egiteko tokiak, jatetxeak, iritziak,...- eskuratzen dugu. Konfiantzarik handiena gertukoek emandako informazioak ematen digu, ordea.

Nagore Salaberria eta Josu Iztueta 14-16. orrialdeak

6	Iritziaren leihoa: Tolosaldea Zero Zabor eta Txomin Garmendia	4-5
6	Normalizazioa: Bigarren goz Mintzalaguna bikaintzat ikusia	6-7
6	Eskualdeko albistea: San Joanak eskualdean	12
6	Ikasle txokoa: Topic, kulturaren zabaltzaile	13
6	Zintzilik: Auzo-laguntza	17
6	Kultura: <i>The Romanticos</i> taldearen lehen diskoa, <i>My Time</i>	18-19

## Etorkizunean, erraustu ala birziklatu?"



Tolosa, Ibarra, Lizartza, Irura, Anoeta, Billabona-Amasa, Zizurkil eta Asteasuko Zero Zabor taldeak.  
<http://tolosazerozabor.wordpress.com/>

Tolosan apirilean ospatu ziren Naturaldia jardunaldietan, konklusio komun batera iritsi ziren bertan parte hartu zuten hizlariak: natur baliabideak agortzen ari garela, hemendik oso urte gutxira goia joko dugula eta erantzukizun osoa dugula egoera honi buelta ematen hasteko.

Beste hausnarketa batzuk ere ondorengoak izan ziren: "Zer nolako mundua utzi behar diegu gure seme-alabei?" eta "Zer nolako seme-alabak utziko dizkiogu munduari?"

Hondakinen gaira etorrita, Zubietan errauskailua eraikitzea mundua xahutzen jarraitzeko ereduarekin bat dator, behin eraikiz gero tonaka eta tonaka zabor beharko baitu bere izaera justifikatzeko. Eredua lineala jarraituaz, natur baliabideen ustiapena + kontsumoa + zabor pilaketa + errausketa = kutsadura, aldaketa klimatikoa, gaixotasun larriak, minbizia...

Ez gaitzen engaina, proiektu hau ez dator askok aho handiz aipatzen duten produktuen murrizketa, birziklapen eta berreskuratzearekin bat. Gipuzkoarroi errauskailua egitea 400 milioi euro kostako litzaiguke eta 20 urtetarako hipotekatuta utziko gintuzke. Ez al dago beste lehen-tasunik diru hau inbertitzeko? Europatik datozen irizpideei ez al diegu jaramonik egin behar?

Zaborra sortu eta sortu aritu beharko genuke errauskailu hau elikatzeko. Kutsaduraz ez da hitz egin nahi; ez da komeni %70a airera tximinietatik eta %23 zepa toxikoetan doazela azaltzea. Beste batzuek diote ez dela kutsakorra, baina badaezpada ere ez dute bere etxe ondoan nahi. Zepa toxiko horientzat eraikiko al dugu Tolosaldea eder hone-tan zabortege bat?

Tolosaldean jada jendartea aztoratua dabil Atez Ateko bilketa sistema dela eta, komunikabideek eta politikoki batzuen esku-tik egin duten zabor kanpainaren ondorioz jendeak beldurra barruraino sartua dauka. Zeren beldurra?

Atez Atekoa hondakinen %80 birzikla dezakeen sistema eraginkor bat besterik ez da. Orain arte ez da beste sistemarik asmatu emaitza hauek gainditzen dituena. Ez al litzake ona izango denon artean birziklapen kopuru horietara iristea norbera bere hondakinen arduradun eginaz? Non dago gure erantzukizuna?

Ba al dakizue Italian, Katalunian, San Franziskon eta beste hainbat lurraldeetan atez ateko sistemak ondo funtzionatzen duela?

Aipatu, beste batzuek Gipuzkoako herri batzuetan, firma bilketak martxan jarri dituztela Atez Atekoaren aurka eta 5. edukiontzia aldea.

Erraza da jendearen beldurraz eta informazio faltaz baliatuaz firmak biltzen hastea. 5. edukiontzia bilketa sistema honek kasurik onenean %35 birziklatzera iritsi daiteke, zer aterabide izango luke geratzen den %65 zaborrak? Erraustea-rena?

Duela aste batzuk Europako Parlamentuak, birziklagarriak diren gaiak erraustearan aurka eta zabortege eta errauskailuak ez eraikitzearen aldeko mozioa aurrrera eraman du, 2020 urterako epemuga jarriaz. Kontraesankorra, Gipuzkoan errauskailua eraikitzearekin tematuta dauden alderdi politiko horiek Europako parlamentuan errauskailuak ez eraikitzearen eta ixtearen aldeko mozio honi bere babesa eman izana.

Nahikoa dugu interes politikoez. Noiz elkartuko gara arazo honi sustraietatik heldu eta denon artean konponbidean jartzeko? Gu prest gaude elkarriketarako, eta gonbidapena zabaltzen diegu alderdi politiko eta batez ere Tolosaldeko herritar guztiei gurekin batera zein etorkizun nahi dugun eztabaidatzeko.

Agurtzeko, pentsamendu bat: "Hainbeste saiatzen gara gure seme-alabak etorkizunerako prestatzen. Baina, nahikoa egiten al dugu gure seme-alaben etorkizuna prestatzerakoan?" Larry Chalfan

## Muñagorri zerbait istori

Idazlan orrek eman dit nere au egiteko bidea eta orretara nijoa borondaterik onenez.

Zurutuzak dion bezela, Muñagorri jaun ori Berrobin jaio zan 1845'an eta bertan il 1915'an 70 urterekin.

Nagusi au, gizon errespetagarri bat izan zan; bi edo iru basarri-maiztar zitunez, erriko alkate ere bai eta abar. Basarri-maiztar oietako bateko maiarozkakoak aizkolapustua izenpetu omen zun, eta bai nagusia azkar enteratu ere; ala joan omen zan nagusi ori maiztarrarena maiorazkoa etzala egoki apustuan astea eta bertan -bera uzteko aginduarekin. Ala egin bear ere, orduko nagusiak zuten agintzearekin. Ez dira urte asko maiorazko ori il zala, Lino Zabala ain zuzen, Arotzane basarrikoa.

Juan Antonio Muñagorri onek seme bat zun Luis ize-nekoa, entzun izan degu sendagille estuaditzen zebillena; 1913'an pelota-partiduan bi pezeta galdu zitula -edo, aitari dirua eskatu zion eta onek eman ez; itxurak diranez aita au dirua ematen aspertua egongo zan; orduan seme onek kuartora joan eta eskupetakini bere burua il zun.

Orduko apaizan jokaera ala zan da, seme oni etzion illa elizkizunik egin nai izan apaizak bere burua il zula-ko, naiz aitak egiñalak egin orretarako. Bere gorputza illerian, jende oientzako zegon leku berezi batean lur-

peratu zuten; "Zakur-tokia" ere deitzen zitzaion leku berezi orri.

Apaizan jokabide ori zala -ta, elizaren aurka jarri zan gogor nagusi au; bere testamentuan ondasun guztiak "Escuelas laicas, Centro Republicano"rentzat utzi zitun. Aurrez aipatu dedan leku berezi orretan, bere buruarrentzat arrizko illobia egin zun, eta lenengo lurpetik aterata seme orren ezurzak sartu zituzten; ondoren bera, il zanean jakiña.

Entzun izan degu, kanpo -eritik eta abar, bazirala apaizak etorriak nagusi ori konbertitu asmoz; baiña neskameak ate ondodtik bialtzen omen zitun. Serbitzaille orren jokaerak bai omen zun bere pikardia, apaizak konbertitzen bazuten ondasunak bereganatuko zituztela eta neskame ori ere oiek itxaropenez bizi nunbait, naiz gero ezer gabe gelditu zan.

Il zanean maiztarrak eraman omen zuten bere gorputza kajaren gaiñean zapi gorri bat zula, illerrian, berriz, egundoko puntzioa, kanpotik etorritako izlari eta abarrek. Gure aita zanak amai-ka aldiz esan zun, urrutixora ere zabaldu ziralari eriotz aren oiartzunak.

Muñagorri jaun ori jaio eta bizitu zan etxea gaur eze-rretzua dago erriko plazaren ondoan zanez, bi basarri maiztarrak erosi zituzten, Tolosako parkea egin zan soro



Txomin Garmendia Bertsolaria

2012-V-22'an D.V. egunerokoan, Jabier Zurutuzaren idazlan bat zetorren; Tolosako Ume Parkeari, Muñagorri izena ondo etorriko litzaiokeela esanez, parke orren nagusia Juan Antonio Muñagorri Argiñarena berrobitarra zanez.

ori, berriz, Tolosako Udalak bereganatu zun. Baiña, oraindik terreno puska asko da Berrobin Muñagorriren jabetzarekin.

Urtean joanekin izaerak, izenak danak aldatzen dira, Tolosako parkea dagon orretan arta-soroa ezagutu-ta gaude, Jabier Zurutuzak dion bezela, "Muñagorri Parkea" izena jarriko ote zion? Udaletxeak bere esku edukiko du noski. Ia aztu zitzaidan, Berrobiko illerrian aurrez aipatu dedan illobia an dago ikusi nai dunarentzat.

# Bigarren goz Mintzalaguna bikaintzat ikusia

Bigarren ikasturtez jarraian, Galtzaundi Euskara Taldeak Mintzalaguna egitasmoa antolatzeari ekin dio. Ikasturtearen amaierarekin batera, kurtsoaren balorazioa egitea dagokie bai parte hartzaileei eta baita egitasmoaren bultzatzailea den Galtzaundiri ere.

Erredakzioa

2011-2012 ikasturtean guztira 39 lagunek parte hartu dute Galtzaundi Euskara Taldeak koordinatutako Mintzalaguna proiektuan. Zortzi boluntariok, hiztunek, gidatutako beste horrenbeste talde osatu ziren iragan urrian. Euskaraz hitz egiteko ohitura duten boluntario hauen lana astero taldea dinamizatzea izan da, taldekideak euskarara gerturatzeko helburuarekin. Aipatu zortzi talde hauen artean, zazpi taldeen egitekoa euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea izan da eta gainerako beste taldearena ordea, hitanoa lantzea.

Norbanakoen datuak aztertuta, 26 lagun gerturatu dira Mintzalaguna egitasmoa euskarara praktikan jartzeko helburuarekin eta beste 5 hitanoa lantzerantz. Izan ere, hitanoaren erabilera sustatzeko taldea 2011-2012 ikasturtean jarri da lehenengoz martxan. Ekintza hau, egungo errealitate bati erantzuna emateko antolatuz, Tolosan hitanoak jasaten duen erabilera murrizari, alegia,

**Programaren balorazio positiboa**

Mintzalagunaren ikasturtearen amaierarekin batera, Gal-

tzaundi Euskara Taldeak partaide ezberdinei programaren ebaluazioa egiteko eskatu eta ondorengo lerroetan zehaztutako emaitzak jaso ditu.

Egitasmoaren parte hartzearen zergatien artean ondorengoak zerrendatu dituzte mintzakide ezberdinek: "euskaraz (gehiago) hitz egiteko", "lagunak egiteko eta ondo pasatzeko", "euskaraz bizi nahi dudalako", "euskarara hobetzeko" eta "ikasitakoa ez galtzeko". Hala ere, inolako ezbaierik gabe "euskaraz (gehiago) hitz egiteko" zergatia gehien jasotako erantzuna izan da.



Aldez aurretik zehaztutako helburu horiek batz bestekoz 7,33an bete direla aitortu dute egitasmoa parte hartzaileek. Taldean puntualitatea, giroa eta parte-hartzea bezalako alorrak ontzat edo oso ontzat baloratu dituzte; baita, programaren inguruan jasotako informazioa, dinamizatzailearekin harremana eta ikasturtea orokorrean ere.

Mintzalaguna proiektuan parte hartuz geroztik, mintzakideek euren egunerokotasunean euskararen erabilera areagotu dutela aitortu dute. Bikotearekin (%66,66), seme-alabekin (%66,66), lagunekin (%83,33), lankide-ikaskideekin (%75) eta herriko merkatarieuskaradunekin (%91,6).

**Galtzaundiren balorazioa**


Parte hartzaileek ikasturtearen balorazio positiboa egin eta Galtzaundi Euskara

Taldearen egitasmoaren inguruan luzatutako balorazio orokorra ere oso positiboa izan da. Hurrengo urteari begira, talde batek luzatutako proposamena jasota, talde batzuen elkartzeko maiztasuna areagotzea aztertuko da. Bestetik, Galtzaundi Euskara Taldeak Mintzalaguneko talde ezberdinen jarrera txalotu nahi izan du: "taldeak oso gustura azaldu dira, beraien arteko harremana oso ona baita".

Aipatu guztia kontutan harturik, datorren kurtsoari begira, 2012-2013 ikasturtea, Galtzaundi Euskara Taldeak berriro ere bere atea zabalduko dizkio Mintzalaguna egitasmoarekiko interesa azaltzen duen edonori, hiztun zein mintzakide bezala parte hartzeko. Komunikazio kanpaina irailean zabalduko bada ere, aurretik informazioa

eskuratu ahal izateko Galtzaundirekin harremanetan jartzeko aukera dago (Tolosa. Nafarroa etorbidea, 6 behea, edo 943 655004 telefono zenbakia).

**Ikasturte amaierako bilera**

Hala ere, kurtsoari ezin erabateko amaiera eman hitz eta mintzakide guztiak elkartu bitartean. Mintzalagun egitasmoa 2011-2012 ikasturtean posible egin duten norbanako guztiak gonbidatu ditu Galtzaundik datorren ekainaren 21ean, ostegunean, arratsaldeko 18.00etan, Tolosako lurre elkartearen ospatutako bilera-meriendara. Mokedu bat hartuz, talde ezberdinen artean harremanak sortu, hobeto elkar ulertu, ikasturtearen balorazioa egin eta hurrengoari begira proposamenak luzatzeko unea izango da ekainaren 21ekoa. 



**Aurretik**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel: 943 673 118 Tolosa

euskararen semaforoa  
euskararen semaforoa  
blogspot.com



 matilda

zure moda osagailu denda

Korreo Kalea, 3  
Tolosa

# Tolosaldeko baserri-paisaia balioan jartzeko unea

Tolosaldea eskualdetik kanpo ezaguna izatearen arrazoietako bat, azaltzen duen baserri-paisaiarena da. Hala ere, baserri-paisaiaren egungo egoera mendeetan zehar baserritarrek egindako lanaren ordaina dela ahaztu ohi da. Tolomendiren ekimenez, eskualdeko baserri-paisaia balioan jartzeko unea iritsi da. Iker Karrera adituak datuak mahai gaineratu ditu.

Naiara Roldán de Aránguiz

Tolomendik, Tolosaldeko Landa Garapen Elkartek, Gipuzkoa eta Bizkaiko beste zortzi landa garapen elkarterekin batera landa-paisaia atlantikoan balioa agerian jartzeko ekimena

martxan jarri du. Baserri-paisaiek dituzten elementu bereizgarrienak identifikatzeko eta horiek kontserbatzeko ekintzak proposatzeko parte-hartze saio irekiak antolatu ditu.

Tolosaldean, ekainaren 13 eta 27an ospatuko dira aipatu taillerak, Villabonako Mintzola Fundazioan, 18.00-20.00 bitartean. Bereziki, udaletako ordezkari zehar lehen sektorean aritzen diren eragileei zuzendurik daude, baina parte hartzea irekia izanda, gaiarekiko interesa edota ekarpena egiteko gaitasuna duen orok parte har dezake. Saioretan parte hartzeko, paisaia.atl@paisaia.com helbide elektronikoa bitartez, edota 943 335048 / 686 738152 telefono zenbakien bitartez izena eman daiteke.

Tolomendiko teknikariak, Iker Karrera, proiektuaren zehar Tolosaldeko baserri-paisaiaren azterketaren berri eman dio

Galtzaundiri. "Baserri-Paisaiek Tolosaldean" proiektuak bilatzen duen helburua, Karrera hitzetan, "atlantiar paisaia, baserritarrek egindako lanaren ondorioa dela aintzatestea, ezagutzera eman, eta denboran kontserbatu eta balio bihurtu dadin ekintza ezberdinak egitea da". Are gehiago, "Tolosaldeko paisaiek ez dira zerutik erori, baserritarrek egindako mendeetako lan bat dago atzean, gizaritari argi eta garbi jakinarazi behar diogu", dio Karrera.

Baserri-paisaia balioan jarri ahal izateko, eman beharreko lehen pausoa egungo egoera ezagutzea da, horretarako ezinbestean inguruak lehen sektorearekin duen harremanari heldu beharra dago: "egoera baserri aktibitateari lotuta dago eta momentu txarrak bizi dira; horren ondorioz, jende dezentek aktibitatea utzi edo aldatu egin du eta horrek paisaiaren-

gan efektu batzuk eragin ditu", aurreratu du Tolomendiko teknikariak. "Geroz eta zabalagoak dira sasi eremuak, ez-segatze horrek beste mota bateko landaretzak indarra hartzea ekarri du. Sasien indar hartze bat dago eta horrek paisaian bere eragin negatiboa dauka. Ikustera ohituta egon garen belardi txukun horiek, poliki-poliki zikintzen ari dira", dio Iker Karrera.

Paisaiari dagokionez, nekazaritza eta abeltzaintzaz gain, basogintzak ere bere garrantzia du. Izan ere, Gipuzkoako datuak aztertuta, inguruaren %60a baino gehiago basoa da; datuak Tolosaldera ekarrita, ehunekoak zertxobait behera egiten badu ere, nagusitasuna azpimarratzen da. Baina basogintza jarduerari erreparatu gero, sektoreak bizi duen egoera oso txarra dela esan du Karrera: "baso kudeaketan aldaketa batzuk ematen ari dira, abandonu bat ematen

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baseria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176



**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA



**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



ari da eta sasi eremuak indar gehiagorekin zabaltzen ari dira”.

Garai batean pinudi eremuek nagusitasuna izan bazuten ere, behin pinuak moztuta, toki asko ezer landatu gabe mantendu dira eta horrek “edozer gauza” ateratzea ahalbidetu du, “seguruena, hemendik urte batzuetara atlantiar basoa garatuko dela, baso nahastu bat, eta horrek akaso paisaia ikuspegitik bere onurak ekarriko ditu, ekonomiko ordea pinuak bere garrantzia izan du”.

Baseri-paisaia horren beste elementu nagusietako bat, ez-bairik gabe, baserria bera da. Egun, egoera ezberdinak medio, baserriak ere “hondamen egoeran” ageri dira: “hainbat arauengatik baserria berreskuratzea zaila egiten da, baserrietan bizitzea ere, bertako jardueira ekonomikotik ez bazara bizi, gora behera batzuk ematen dira eta horrek guztiak baserriak hondamen egoeratan egotera bideratzen ditu, baseri-paisaia desitxuratuz”.

**Egoera ekonomikoak bere eragina**

Duela urte batzuk, lehen sektorea hirugarrenera gerturatu bazen ere, nekazaritza eta

abeltzaintza turismora hurbilduz, baseri-turismoa aukeratzat bilakatuta, egun honako egoera erabat geldu dago. Hala ere, aurrera begirako egoeraren berri ematea zaila ikusten du Iker Karrerak: “orain arte ekonomia inguruan egon diren aldagai guztiak aldatu egingo dira; orain arte, bigarren eta hirugarren sektorean lana egon bada ere, dagoeneko ez dago denentzat eta horrek ere, lehen sektorean bere eragina izango du”.

Nekazaritzarako joera bueltan dela aitortzea dago, “poliki-poliki nekazaritzara itzulera ematen ari da, aukera ekonomiko posible eta bideragarri bezala”. Azken urtetan, lehen sektorea, bigarren edo hirugarren mailako alternatiba ekonomikotzat ikusia bazen ere, desprestigiaturik, mailak parekatzen hasi dira. Inflexio egoeran murgildurik gaudela kontutan harturik, Iker Karreraren ustetan, “urte batzuk beharko dira, gauzak egonkortu eta paisaierengan efektua izateko”. Izan ere, nekazaritzaren birsortzeak, paisaierengan ere bere eragina sortuko du, orain arte zikin zeuden lurren berreskuratzearekin.

#### Tailer praktikoak

Ekainaren 13 eta 27an ospatuko diren saio praktikoak “Baseri-Paisaiak Tolosaldean” proiektuaren pauso bat baino ez dira, eman beharreko lehen pausoa, hala ere. “Baseri-paisaiaren balio esanguratsuenak identifikatu nahi dira”. Parte hartzaileen parte hartze aktiboaren bitartez eta metodologia ezberdina erabiliz Tolosaldeko paisaia esanguratsuenak jasoko dira.

Ondoren, elementu horiek ezagutzera eman eta balioan jartzeko, ekintza ezberdinak antolatu beharko dira; ibilbide tematikoak, udaletxeetako neurri positiboak... adibide batzuk baino ez dira. Iker Karrerak, hartu beharreko jarrera positibo horrengan fokatzen du atentzioa: “mugak jarri gabe, urteetan eta mendeetan egunerokotasuneko lan bat eginez paisaia hau izatera iritsi gara. Mugatzea baino aktibatzea eta efektu positiboa izan dezaketen jarrerak bultzatu beharko genituzke. Lehen sektoreko aktibitatea mantentzen laguntzen duten ekintzak izango dira paisaia kontserbatzen laguntzen dutenak. Zuzenean paisaian enfokatzeko badugu gaizki goaz. Ezin da ahaztu paisaia sektorearen eta jardueraren ekonomikoaren ondorioa dela”, luzatzen du kritikoki Karrerak. Azken finean, foku nagusia baserrian, bertako jardueran eta baserriarrangon jarri beharra dago, ekintza ezberdinak foku horietara bideratuz eta paisaia “azpi-produktua” dela kontuan izanik.

Gauzak honela, baseri-paisaiko elementu ezberdinak aztertzeke garaian, elementuak anitzak badira ere, makro-elementuak (soroak, belardiak, basoak, baserria...) eta mikro-elementuak (itxiturak, baserri inguruko apainketa,

zuhaitz zehatzak...), proiektu honen egiteko makro-elementuetan atentzioa fokatzeko izango da. “Detalle txiki horiek elementu nagusiak osatzen laguntzen badute ere, helburua nagusietan atentzioa jartzea izango da”, aurreratu du Iker Karrerak adibide bat luzatuz. “Baserri inguru bat oso zaindua eta polita egon daiteke baina handik 100 metrora sasia bada ez dugu ezer lortu. Sektorea da bultzatu beharrekoa, sektore ikuspegi batetik eta sektore protagonista izanik”.

#### Baita ondorio ekonomikoak ere

Askotan, gaur egungo gizartean, proiektu ezberdinen garrantzia frogatu ahal izateko balio ekonomikoak tartean egon behar direnez, baseri-paisaiaren garrantzia aztertu ahal izateko balio ekonomikoak jorratu beharreko beste aldagai bat izan daiteke, landa garapen adituaren esanetan. “Gizarteak landa eremuan lan egiten duten norbanakoen funtzioa ulertu behar du. Funtzio horren ondorioz gizartea onuradun ateratzen da. Aktibitate bat bertan behera gelditzeak, lehen sektorea bertan behera gelditzeak, norbanakoengan zenbait efektu sortu ditzake”.

Ondorio horietako bat, landa inguruan kokaturik dauden etxebizitzaren balio ekonomikoaren murrizketa izan daite-

ke. Askotan, txalet horiei balioa ematen diena kokalekua da eta bereziki kokalekutik ikus daitekeena. Hori horrela izanik, Iker Karrerak argi dauka balio horren erantzule nortzuk diren: “etxe hauei milioietako balioa erasten ari zaizkie baserriar horiek urtetan egin duten eta gaur egun egiten ari diren lanari esker”. Baserriarrek euren lana egiteari utziz geroz, etxebizitzaren balioa jaitsiko denaren zalantzarik ez du Tolomendiko langileak. Are gehiago, “ez gara kontziente, baina baserriarren lanak guztion ondareari balioa ematen dio, balioa ekonomikoa izateraino”. Baserriarren lanarekiko zorra kitatzen hasteko modua ordea, lan horren jakitun izan



eta aktibatzen jarraitzea da, Karreraren ustetan.

Proiektuak erakunde mailan harrera oso positiboa izan duela azpimarratu beharra dago; Mendinetek, Kutxa Ekoguneak eta Inagrosalute elkarrekin, diruz lagundu dute. Baina Iker Karrerak esandakoari jarraiki, Tolomendi dagoeneko gogoz dago eskualdeko eragileekin elkartu eta euren harrera ikusteko: “eskualdeko eragileak dira protagonista nagusiak, haiek dira elementu nagusiak zerrendatu, ekintza ezberdinak planteatu, aurrera eraman eta bultzatu behar dituztenak. Haiek gabe ezer gutxi egin genezake”. Horrenbestez, eskualdeko eragileei dagokie hitza hartzea. ©

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagirre

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGURAS  
BILBAO



Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin**  
Eceizabarrena

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

**HALCON**  
BIDAIK

*Bidaiarik erakargarrienak*

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



**errrotatxo**  
okindegia

Andia kalea, 3  
Tel.: 943 655 492

Amaroz, 9-A  
Tel.: 943 671 038

# San Joanak eskualdean



## Ibarra

**San Joan bezpera.** Ekainak 23, larunbata. Hauspoa elkarrekin antolatuta.

## Anoeta

**San Joan bezpera.** Ekainak 23, larunbata. 18.00etan hasita buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistulariekin, herri afaria, txalapartarien San Joan bezperako suaren jaiaren iragarpena, Suaren inguruan San Joan zortziko kantuak eta erromeria: Markox Landa, aita- semeak, aho-soinuarekin.

**San Joan eguna.** Anoeta-ko festak, jubilatuen eguna. Ekainak 24, igandea. Meza jubilatuei eskainia, dantzarien agurra, herriko jubilatuei eta pentsiodunen bazkaria, Anjel Mari Peñagarikano eta Txomin Azpiroz bertsolariak, dantzaldia eta giza proba (Anoetako herri kirol taldea eta Ibarra-ko soka-tira taldearen arteko lehia).

## Altzo

**San Joan bezpera.** Ekainak 23, larunbata. 20.30ean hasita, sua piztea, zahagi-ardoa eta dantza suaren inguruan.

## Abaltzisketa

**Ekainak 22, ostirala.** 21.00 Sagardo dastaketa (Larrarte, Isastegi, Rufino, Etxeberria, Zalbide, Begiristain, Sarasola, Aburuza, Zabala) herriko plazan, afaria norbere kontura eta nahi izanez gero oilaskoak eta hirugiharra salgai egongo dira. Ondoren, Laiotz taldearekin erromeria.

**Ekainak 23, larunbata. San Joan bezpera.**

10.00 Ume jolasak  
15.30 X. Mus Txapelketa Larrunari elkartean  
21.30 San Joan sua  
Jarraian, San Joan dantza eta soka dantza herriko gazte- txoek dantzaturik  
Ondoren, dantzaldia Unsain anaiekin  
Atsedendian, aulki jokoa (irabazleak saria izango du)

**Ekainak 24, igandea. San Joan eguna.**

11.00 Meza nagusia  
Jarraian, herriko gazteen trikitixa emanaldia  
Bitartean, jubilatuentzako ha- maiketako  
12.00 Apustua  
13.00 VIII. Toka Txapelketa

18.00 Zaldi lasterketa Amezketatik Abaltzisketara  
Ondoren, herriko gazteen ar- teko jokoak  
21.00 Barrikotea herriko plazan (afaria norberak eramanda)  
Afariari laguntzeko Beñat Igua- ran eta Mikel Artola bertsolari- rik ostutako bertso saioa  
Jarraian, festei amaiera emate- ko, erromeria Elustondo anai- -arrebekin

**Uztailak 1, igandea. San Pedro eguneko ospakizuna Larraitzen**  
12.30 Meza Nagusia  
Ondoren, hamaiketako eta trikitilariak  
Arratsaldean, trikitixa iluntze- ra arte

## Belauntza

**Ekainak 22, ostirala**  
21.00 Mus txapelketako aurre finalak eta finala Martintxo el- kartean

**Ekainak 23, larunbata**  
13.30 Txupinazoa festei hasie- ra emateko  
19.00 Kontzertua San Juan elizan  
21.00 San Joan bezperako sua

kanpai jotze eta etxafuegoekin  
Ondoren Herri afaria Eluston- do anaiak trikitilariarekin, goi- zalderarte  
23.30 Latino dantza emanaldia

**Ekainak 24, igandea (San Juan eguna)**

09.00 Diana txistulariekin he- rrian zehar  
11.00 Meza nagusia San Juan elizan  
Ondoren Hamaiketako he- rriko tabernan Zeberio eta Mañukorta bertsolariarekin  
18.30 Pilota partidua Belaun- tzako frontoian: etorkizuneko pilotariak eta Mikel Goñi eta Senperena – Belloso eta Beo- bideren aurka  
Ondoren Erromeria Ai ene! tal- dearekin

**Ekainak 25, astelehena**

17.00 Umeentzako jolasak eta puzgarriak  
Ondoren Txokolatada  
19.30 Etxean egindako tortilla patata eta pintxoaren lehiaketa  
20.00 Kostila jana herrikoen- tzat plaza inguruan, Pagadi eta Etxeberritxu trikitilariak alaitu- ta, festei bukaera emateko

# Topic, kulturaren zabalzaile

Batetik, Titirijai bera. Urtero egiten den txotxongilo jaialdia. Txotxongiloz betetako astebete, haurrak eta helduak gozatzeko egina. Urtero leiho moduko bat egiten dute, jaialdia herrialderen bati eskaintzeko. Aurtengoan (lehengoan, hobeki esanda) Suitzako herriari zuzendua zegoen, eta hango aniztasun guztia Tolosara ekarri zuten. Suitzako ordezkariek berek zioten ez zutela uste beren herrian hainbesteko kultur aniztasunik zegoenik. Gainera, aste osoa nolabaiteko giro etxekoiaz igaro zen, izan ere, hain zen beroa jende haren guztiaren tratua, non ez baitzegoen jakin-minaren eskuetan erori beste erremediorik.

Bestetik, hileroko ikuskizunak. Urtean zehar Titirijaiako kutsu hori mantentzea ere behar-beharrezkoa da, eta horregatik, hileroko txotxongilo ikuskizunak egoten dira Topic-en, haurren eta gurasoen gozagarririk. Baina, ikuskizuna bera baino gehiago, horrek ekartzen duen kultura-aberastasuna da garrantzitsua. Mundura irekiarazten du ikuslea, eta txotxongilo xume batzuek Txanogorritxoren edo Pinotxoren mundura eramaten ditu, beti ere bi bidetatik. Bat ikusten dena, istorioa bera, eta besteak, ikusten ez dena eta gizaritari kritika egiten diona.

Erakusketak ere oso garrantzitsuak dira, Topic museo ere baden aldetik. Behin betiko erakusketak bat dago, herrialde askotako txotxongiloz bete, eta

behin-behineko bat ere bai, sei hilabetez behin aldatzen dena. Ekainaren hasiera arte, "Galede Masks" izenekoa egon da, Afrika aldeko txotxongiloek osatzen dutena. Globalizazioaren alderdi negatiboaren kontra jokatzen modu paregabea da erakusketak egitea, eta Topic-ek berak hartua du ardura.

Normala eta zentzuzkoa da, beraz, orain oso gutxi lortu duena lortzea. Europako urteko laugarren museorik onena izendatu dute Topic, berrogeita bosten artean. Gainera, Silletto saria eman diote, azken bi urtetan inguruko komunitateekin harreman estua izateagatik. Izan ere, azken denboraldian hantxe aritu dira Topic-eko ordezkariek hainbat herrialdetara bidaiatzen, hangoa ezagutu eta lagin xume batzuk ekartzeko. Kulturaren zabalkuntzaren erakusle ezin finagoa da hori. Aipatu lanak beste sari nagusi bat ere ekarri dio: 2016an Donostiarekin batera Txotxongiloen Munduko Kongresua eta Jaialdia antolatzea.

Beste ekintza asko aipatzeke utzi ditut (lehiaketak, eskola kanpainak, museoaren eguna...), lerro gutxi hauetan sartzen ez zirelako. Argi dago, nire uste apalean, kulturak herriak hezten dituela, herrien izena eta izana gordetzeko giltza dela. Horretan Topic-ek egiten dituen ahaleginak goraipatze-koak dira guztiz. Heziketa da aurrerabidearen oinarria, zutarria. Zabalduta egin behar



Iñigo Azkue  
Hirukide Ikastetxeko ikaslea

Topic-en sartu eta giroa gelditu ezin egonarena da, gutxi gorabehera. Txartelak saltzen dituenak saldu eta saldu, Ambigú tabernakoa, berriz, jo eta su haurrei txokolatezko irabiakiak eman eta eman, eta gu hantxe, kamerak eskuan, aktibotasun haren guztiaren erdian. Eta ez da egun bakarra izaten, oso maiz errepikatzen da fenomenoak. Hona Topic-ek Tolosan kultura sustatzeko giltzak:

dugu, bai, baina, geurea dena, heziketa, oinarri hartuta. Hortik abiatzen da kulturaren zabal- kunea. Topic-ek egiten duena gehiago saritu beharko litza- teke, aurrerantzean galdu ezin daitekeen hori gorde dezan, kultura gorde dezan.

# Nagore Salaberria eta Josu Iztueta “Bidaiarien arteko aurrez aurreko harremanak bultzatu nahi ditugu”

**Bidaia bat antolatzerakoan espezializatutako aldizkariak, gidak,... lagungarri izaten ditugu. Internet-eko bilatzaileei esker, informazio ugari -lo egiteko tokiak, jatetxeak, iritziak,...- eskuratzen dugu. Konfiantzarik handiena gertukoek emandako informazioak ematen digu, ordea. Halako elkarriketak aurrez aurre egitean, iragana orain bilakatzen da informazio emailearentzat eta etorkizuna ilusio, jasotzailearentzat.**

Igor Mujika

Ilusioz beteta dira Nagore Salaberria eta Josu Iztueta ere. Abentura berri baten hasieran dira: bidaiari lotutako pertsonen arteko harremanak bultzatu nahi dituen Antxon Bandres Bidaiarien Txokoa egitasmoa gauzatzeko Tolosako Errota Haur liburutegiaren azpialdean, Andre Mari plazan, kokatutako gunea egokitzen eta herritarren artean aurkezten ari dira.

Egitasmoaren nondik norakoaz informatzeko, bertaratzea eta zuzenean beraiekin hitz egitea da hoberena. Hitzun ezin hobeak dira biak ala biak eta, prestatzen ari diren txokoak, lasai hitz egiteko, hausnartzeko eta amets egiteko aukera ezin hobe eskaintzen du.

**Antxon Bandres Bidaiarien Txokoa, zertarako da?**

**Nagore:** bidaiekiko interesa duen jendea elkartzeko, elkarrengandik ikasteko eta hurrengo proiektuetarako txispa sortzeko tokia da. Ez da egitasmo pribatu bat. Autogestioa eta

elkarlana oinarri, aurrera aterako den egitasmoa da.

**Bidaiarien arteko harreman pertsonalak bultzatu nahi dituzue, beraz.**

**Nagore:** Interneten informazioa horren eskura egonda, zer zentzu du liburu zaharrekin txoko bat antolatzeak? Pertsonen arteko aurrez aurreko harremanak bultzatu nahi ditugu, bai. Liburuak,... aitzakia izango dira bidaiarien,... arteko harremanak bultzatzeko.

**Josu:** leku atsegina izan daiteke pertsona ezberdinak proiektu baten baitan biltzeko, bidaia bat antolatzeko. Afrikara egindako lehenengo bidaietan, bertan egondako misiolariekin egoten ginen. “Zairen egondako bidaiari bat etorri da”, entzutearekin bat berarekin egotera joaten ginen, bertako berri izateko. Orain, aldiz, Interneten zer behar duzun jarri eta informazioa eskuratzen da. Pertsonen arteko harremanak, ordea, gutxitu egin dira eta guk harreman horiek sustatu nahi ditugu.

Bestetik, jendeak etxean dituen bidaiari loturiko liburuei,... aterabidea emateko txokoa ere bada. Jada, herri eta gai ezberdinei -gastronomia, mikologia,...- buruzko liburuak irakurri daitezke hemen. Ibaia ondoan eserita irakurtzen egoteko txoko aparta da ondokoa. Wifi-a ere badago. Kanpoan, berriz, ohar taula jarri asmo dugu, pare bat bota salgai dituenak edo nora edo hara bidaia antolatzeko informazioa behar duenak bere beharrak bertan jarri ditzan. Bi-

daiarekin lotura zerk duen erabakitzea baino zailagoa izango da zerk ez duen zehaztea.

**Egunerokotasunean, zer nolako funtzionamendua izango du?**

**Josu:** uztaile artean, 17:00etatik 20:00etara hemen egongo gara, astelehenetik ostiralera. Egitasmoa ezagutu nahi duenak,... etorri besterik ez du. Udaran zer egin, ez dugu oraindik erabaki. Gurekin harremanetan jartzeko bidaiari@bidaiarientxokoa.info helbide elektronikora ere idatzi ahal da.

**Nagore:** eguneroko dinamikak erakutsiko digu zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Ahalik eta behar gutxien sortu nahi dugu, gure buruekiko malguak izateko. Webgune bat ere martxan jarriko dugu eta, bertan, besteak beste, Bidaiarien Txokoa eskuragai ditugun liburuen berri emango dugu.

**Josu:** zalantza dugu materiala hemendik ateratzeko aukera eskaini ala ez. Izan ere, liburuen mailegu dinamikan sartuz gero denbora asko pasa dezakegu mailegatutako liburuen zain. Gure nahia Bidaiarien Txokoa kontsulta txokoa izatea da. Bestetik, bidaiari parte izan daitezkeen antropologia, fauna, geologia,... ardatz hartuta tailerrak antolatu asmo ditugu. Udazkenean, esaterako, euskal mendizaletasunari buruzko ziklo bat egingo dugu, ziurrenik. Baina oraindik ez dugu egitarau konkretu bat prestatu. Ideia asko ditugu buruan baina, egungo gure lehentasuna, hemen ditugun liburuak,... ordenatzea



da. Halaber, Bidaiarien Txokoa jendartean aurkeztu nahi dugu egitasmoa bere egingo duten bololuntarioak topatzeko.

**Liburuak aitzaki, bidaiariak elkartzeko txokoa antolatzeko beharra nondik sortu zaizue?**

**Josu:** bidaiari harira erositako liburu, aldizkari, mapa,... mordoan irteera bat eman behar nien. Iazko irailean hil zen Antxon Bandres ere liburu mordoan zituen. Material horri guztiari irteera bat emateko espazio fisikoaren premia genuen eta Tolosako Alde Zaharrean lokal baten bila hasi ginen. Horretan ari ginel, martxoan telefono dei bat jaso nuen alkateari egitasmo honen berri iritsi zitzaioela eta lokal hau eskaintzen zigitela esanez. Laponian nintzen orduan eta guk edukia eta beraiek lokala jarri gero, egitasmoa aurrera atera zitugun liburuak,... ordenatzea

dagokionean, berriz, bila joanda ere zaila litzateke halako txoko bat aurkitzea: mendia aurrez aurre, uretik gertu, piraguak hortxe direla,...

**Eta, Nagore, zuk noiz eta nola izan zenuen egitasmo honen berri?**

**Nagore:** lagun batzuk bazkaltzeko geratu ginen. Pertsonalki, Josu bazkari hartan ezagutu nuen eta, zuzenean, egitasmoaren berri eman zidan. Oso egitasmo polita da baina jende gaztea lotu behar duzu, erantzun nion.

**Josu:** horrelako egitasmoa aurrera ateratzeko jende ameslaria, baikorra, ilusioa duena behar da ondoan.

**Zenbat lagun ari zarete egitasmo hau bultzatzen?**

**Nagore:** belaunaldi ezberdinetako 8 lagun elkartu eta talde eragilea sortu dugu. Batetik bestera asko ibili den nahiz kanpoan





na Nairobiarrak egitasmoarekin destino asko errepikatu ditugu eta, ondorioz, beste destino batzuk ez ditugu ezagutu. 24 urte genituela Aljeriako hegoaldetik Nigeriako mugaraino joaten ginen, basamortuan, 20 bat lagunekin. Pertsona horiek diru sari bat ematen ziguten bidaia antolatu eta beraiekin egiteagatik. Guk, berriz, 20 lagun horien ardura hartzen genuen. Oso ardura handia da. Talde barruan gerta daitezkeen tentsio uneak, mugak, hondar ekaitzak, ibilgai-luak jasan ditzakeen matxurak,... denetarik gerta daiteke bidaia batean, eta, esaterako, basamortu erdian ez dago asistentziarik eta konponketak guk egin behar izaten genituen. Ez dugu inoiz istripurik edo ezbehar larririk izan baina kamioiden abiadura bizian, parez pare ispilua ukituz, pasatzen zaizunean, atzean dituzun 20 lagunetikozuzun arduraz gogoratzen zara.

Aldiz, lagunekin Groenlandia edo Laponiara joan izan naizenean, zailtasun handiagoko bidaiak izanik ere, ardura gutxiagoko sentitu dut nire bizkar gainean. Izan ere, gure buruekiko ardurak baino ez ditugu hala-koetan.

**Zuk, berriz, denbora luzez Londres izan duzu bizileku, Nagore.**

9 urte eta erdi pasatu ditut bertan. Ikasketak amaitu ostean, urtebetez Madrilera eta, beste urtebetez, Londresera joatea erabaki nuen. Azken urtebete hori luzatu egin zitzaidan, ordea. Londresen egokitu ostean, bidaiak egiten hasi nintzen eta, Nepalera egin nuen bidaia baten ostean, Euskal Herrira bueltatzea erabaki nuen.

**Zuen kasuan, bidaiatzen duzue, zeren bila joaten zarete?**

**Josu:** bidaiatzeak nondik gatzuzen eta nongoa naizen jakiteko asko balio izan dit. Bidaiatzea, desplazamendua baino gehiago kuriositatea da eta bidaia guztietan zerbait ikasita itzuli naiz.

**Nagore:** nire bizitza ahal duadan adinean sinplifikatzea gus-tatzen zait. Horregatik, motxila egin eta oinez trabesia bat egiteko tartea egiten ditut. Izan ere, bidaiatzeak lasaitu egiten nau. Interneteko orriak diseinatzea da nire lanbidea. Ordenagailua alde batera utzi eta gauzak sinplifikatzeak asko aberasten nau.

Urrutira edo toki exotiko batera joateak ez du esanahi bidaia aberatsagoa izango denik. Himalaia bezalako mendi santutegi bat horren ustiatuta ikustearen ondorioz, pena puntu batetara itzuli nintzen Nepaletik.

**Josu:** nik badakit nongoa naizen, erroak non ditudan, sustriak, familia,... Edonon gustura egon naitekeen arren, badakit lurraren zein zatikoa naizen eta hori oso garrantzitsua dela uste dut. Izan ere, bere garaian artzain edo pilotari moduan alde egindako jende asko ikusi dut negarrez, zahartzarora iritsi eta non hilko diren ez dakitelako, ez hemengo eta ezta hango ez direlako sentitzen.

**Epe motz-ertainean zein bidaia egin asmo dituzue?**

**Nagore:** Mediterranea eza-gutzeko gogoz naiz. Halaber, Mont Blanck-eko buelta egin asmo dut.

**Josu:** uztailean Ohian Beltzara joango naiz hiru astetarako. Abuztu bukaeran, berriz, Mont Blanck-eko buelta egingo dut. ☺

## Zintzilik



**Txarli Gesteira**

Blogaria  
txarli/berriketlan.info

*Crowdfunding-a, finantzaketa kolektiboa, auzo-laguntza, nano-ekoizleak,... sarean gero eta gehiago entzuten diren hitzak dira. Crowdfunding delakoa hitz berria da again, baina ez da finantzaketa modu berri bat gurean: Ikastolak, Egunkaria, Gara, Gartxot filma, eta abar luze batek bere garaian honela egin zuten aurrera.*

## Auzo-laguntza

Gaur egun, sarea komunikazio erreminta garrantzitsua bihurtu da eta crowdfunding-ari esker finantziarioa behar duten proiektuek aurrera egiteko modua aurkitu dute bertan. Crowdfunding, edo sarearen bidezko finantziario kolektiboaren aitzindaria, Marillion talde britainiarra izan zen nonbait. Musika taldeak, banakakoen diru laguntzei esker, Estatu Batuetan barna eskaini beharreko biraren finantzaketa lortu baitzuen, 60.000 dolar eskuratuz.

Gurean sarea (ere) baliatuz, badira finantziario kolektiboan oinarrituta aurrera egin nahi duten hainbat proiektu. **edo!** argitaletxea kasu (<http://www.argitaletxeaedo.org/>), bazkidezia eta boluntario lana oinarri dituela sortu berri da aipatu argitaletxea. Argitaletxe berri eta desberdina, diru irabazi (eta galera) asmorik gabeko egitasmo autofinantzatu hau, borondatezko lanean oinarritzen da. Eleba-

karra da, euskal elebakarra, pentsamendu kritikoa sustatu eta independentea dena. Hapidedun izan nahi ezker 50 euroko kuota ordaindu behar da, trukean, urtean digitalki zein paperean argitaraturiko lan guztiak jasoko dira (urtean bost gutxienez). Bazkideziaren kasuan 100 euro ordaindu behar dira eta kultur proiektu hau sostengatu ez ezik, proiektuan parte hartu ahal izango da eta urtean digitalki zein paperean argitaraturiko lan guztiak jasotzeko aukera emango du.

**Kerobia** musika taldeak (<http://www.kerobia.com/eus/index.php>) ere finantziario iturri hau hautatu du. Taldeak, 29 euro jarriko dituen 750 laguntzaile behar ditu Supernova egitasmoa aurrera eramateko. Ordainean, Kerobiaren abesti berriei osatutako iraupen luze audio CD bat, Supernova proiektua islatzen duen DVD-a, proiektuaren edukiak jasotzen dituen li-

buruxka bat eta mural zati bat, paper grabatuan sortuko den mural baten zati eksklusiboa jasoko du finantzaketan parte hartutako pertsona orok.

Fermin Muguruzaren azken proiektuak ere sostengu ekonomikoa behar du. **Zuloak** (<http://www.zuloak.com>) rock musika taldeari buruzko dokumentala egiteko asmoa du irundarrak. Arrate Rodriguez artistak, rock talde bat sortu eta grabatzen ibili zen, proiektua ez zihoan nahi bezala eta taldea "desegin" zen. Grabatutako material guztia Eider arrebaren esku utzi zuen, eta honek Fermin Muguruzari eman dio. Kasu honetan, diru-laguntzaren (<http://http://zuloak.verkamiplus.com/eu>) truke, taldearen kamiseta, CD-a, DVD-a eta kredituetan laguntzailearen izena azalduko da. Zuloak emakumez osaturiko taldea izan da, 5-6 kontzertu besterik ez zituzten eman eta orain Fermin dokumentazio lana egiten ari da. Nano-

koizleez gain, kontzertuetara gerturatutakoen argazki eta bideoak biltzen eta dokumentatzen dabil. Bildutako material guztiarekin dokumentala 2013ko udaberrian kalean iza-tea espero da.

Hiru adibide proiektu txiki eta bereziak finantzatzeko, sareak ahalbidetzen duen modu ezberdin batean.





The Romantics taldearen lehen diskoa,

# My time

Iker Piris 1979an Tolosan jaioa eta *The Romantics* taldearen sortzailea dugu. Duela 11 urte, musika bere lanbidea du. Era autodidakta batean gitarra jotzen hasi, eta Musikenen gitarra jazz espezialitatean ikasketak amaitu zituen. Egun, estudio musikari gisara kolaborazioak egiteaz gain, Legazpiko Doinua eskolan irakaslea eta *The Romantics* taldearen konpositore eta gitarra da. Ondorengo elkarrizketan *My time* diskoaren berri ematen du.

Naiara Roldán de Aránguiz

**Zein da *The Romantics* taldearen abiapuntua?**

*The Romantics* nire kantuei forma emateko proiektua da. Batik bat *blues*, *rhythm and blues* eta *funky* musika lantzen dugu. Duela hiru urte, *The Romantics* bezala jotzen aritu gara; diskoa kaleratzea taldeari "brotxea" jartzea izan da. *My time* diskoak 11 kanta ditu, 7 nik konposatuta eta gainontzeko 4ak adaptazioak dira. Honakoa hasiera baino ez izatea espero dut, Hilario Rodeiro eta Xabier Barrenetxearekin urte askotan jarraitzea espero dut. Diskoan Paul San Martinek, Donostiako piano-jotzaileak; eta Fredi Pelaez, organo-jotzaileak parte hartu dute. **Izenari dagokionez, zein da *The***

***Romantics* hautaketaren istorioa?**

Donostian taberna batean, lagun batekin nengoela, bat-batean 70-80 hamarkadako *The Romantics* pop taldearen kartel bat ikusi, oker irakurri eta *The Romantics* ahoskatu nuen, gustatu eta taldearentzat proposa zela iruditu zitzaidan.

**Talde ezberdinetan ere jo izan duzu *-Nico Waine Blues Band*, *Musikene Big Band*, *The Foraltes* edo *Drindots*, besteak beste, honakoa ordea zuk sortutako taldea da. Zer suposatzen du horrek?**

Musikatik 20 urte nituenetik bizi naiz, egun 31 urte ditut. Bestelako taldeetan nire kantuak ere tartean lantzen genituen,

baina proiektu horiek gauza batengatik edo besteagatik amaitu egiten ziren. Talde ezberdinek tarteka lana eskaintzen didate, orduan besteen kantua hartu eta nirea bihurtu behar izaten dut. *My time* diskoarekin ordea, nire ideiak eta sentimenduak agertu nahi izan ditut.

**Zer adierazi nahi duzu *My time* lehen lan honekin?**

Nire buruari dedikatu nahi nion honako lan hau. *Time*-a musika munduan, musikariaren *time*-a izaten da, hau da, norberaren jotzeko era... Horretaz gain nire denbora, eta denbora oro har ere irudikatu nahi dut. Diskoa taldearena bada ere, joko horrekin nirea egin nahi nuen, nire buruari omenaldi bat es-

kaintzea, urte hauetan guztietan egindako lanagatik.

**Diskoko abesti gehienak zuk konposatutakoak dira. Nolako izaten da konposaketa prozesua?**

Konposaketak lan eginez sortzen dira, egun osoa gitarra gainean hartuta. Lehenik, musika sortzen dut; ondoren, letra. Musikak nolako norabidea hartu, halako letra ere sortzen saiatzen naiz. Musika taldekideekin interakzioa sortzeko baliagarria izaten saiatzen naiz.

**Kantuak ingelesez sortuak dira. Ezinbestekoa *blues* eta *R&B* soinetan?**

Oraindik ez nago prest euskaraz edo gaztelaniaz kantu bat egiteko *The Romantics*-ekin. Txikitatik *blues*-a entzun izan dut eta momentuz ez dut asmatzen *blues*-a euskaraz egiten.

**Lehen lan hau *Gaztelupeko Hotsak*en bitartez kaleratu duzue. Erraza izan da?**

Gaztelupeko jendearekin hasieratik oso harreman polita izan dut eta oso ondo portatu dira. Diskoa kaleratzea zaila da, esfortzu ekonomikoa suposatzen du. Gaur egun zaila da jotzeko tokiak bilatzea. Taberna asko itxi dituzte, jaialdi asko erori dira eta zaila da disko baten gastuei aurre egitea, amortizatzea eta



baita zuzenean jotzea ere. Zaila da baina horretan gabiltza, eta animo askorekin gainera. Lana dendetan topatzeaz gain, *Gaztelupeko Hotsak*-eko webgunean, *The Romantics*-eko webgunean, *iTunes*-en eta *Spotify*-n ere eskuragai egongo da.

**Aipatu ezazu disko honek jasotzen duen abestirik bereziena.**

*I'm worried* kanta asko gustatzen zait baina jendeak *You make me feel so fine* asko aipatzen du. Bi kantu hauek nire neskari eskaini nizkion. Bi estilo ezberdineko kantuak dira; bata balada eta bestea *R&B*-eko pieza bat da.

**Musikari ospetsuen bertsioak ere taula gainera eramaten dituzue. Nortzuk dira *The Romantics* taldearen inspirazio iturri nagusiak?**

Nik pertsonalki *B.B. King*, *Johnny Guitar Watson*, *The Meters* eta *Ray Charles*, tankerako taldeak maite ditut. Kontzertuetan euren kantuak moldatzen ditugu. *My time* diskoan *Nico Wayne*

Frantziako aho-soinu jotzaile ospetsuaren abesti bat dago *-Walking down College Street-*. Berarekin kontzertu batean jo nuen eta bere abestiaren moldaketa bat sartu dugu diskoan.

**Diskoa kaleratu aurretik eszenatoki ezberdinetan aritu izan zarete, zer azpimarratuko zenuke zuen zuzenekoaz?**

Gaua festa bilakatzen eta publikoarekin *feedback*-a lortzen saiatzen gara. Publikoa entzule soila izateari utzi eta kontzertuaren parte bihurtzen da.

**Nolako eszenatokiak dituzue gustukoak?**

Toki bakoitzak bere xarma dauka; taberna txiki batean jendea oso gertu izanda zenbait gauza eman eta jaso daitezke. Eszenatoki handi batean, *batioekin* jotzeak, soina aldatzen du.

**Noiz du *The Romantics* taldeak publikoarekin hurrengo zita?**

Ekainaren 15ean Erreterriako Haizea tabernan eta 22an Ge-

txoko Blues Jaialdian egongo gara. Ondoren, Hondarribiko Blues Jaialdiaren bitartez *Rock to Memphis* lehiaketan joko dugu, irabazleak Memphis-en kontzertuak eskaintzeko saria eskuratu du. Abuztuaren 10ean Burladako Blues Jaialdian ere parte hartuko dugu. Eta areto txikiei dagokionez, kontzertuez beteriko agenda dugu. Jaialdietarako une aproposa da, baina diskoa kaleratu berri denez, hurrengo urtera begira gauza interesgarriak aterako direla uste dut.

***My time* lehen diskoa duzue, baina dagoeneko hurrengoan pentsatzen hasita?**

Jakina baietz! Dagoeneko abesti batzuk prest daude, beti lanean gaude, entseguetan edo kontzerturako probetan, ideia bat erakutsi eta baiezkota jasoz gero, aurrera egiten dugu. Hemendik urte erdira hurrengo diskoa grabatzen egotea espero dut.

Errotulazioa & inudia  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com  
943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Laskibar bialara 25, 1-04 atna  
20271 Iruia (Gipuzkoa)

**Saldias Miguel**  
CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA  
N. D.G.S. J.1759  
Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak  
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com

0100100  
00111100  
00111100  
00111100  
**Tolosa Bit**  
Informatika Zerbitzuak  
Ondarribian eta Tolosan  
Egiten eta partekatzen dituzten zerbitzuak  
Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es

## irakurri entzun Ikusi

19 Kamera  
Jon Arretxe



Trama paralelo batzuek osatzen dute umorea eta gordintasuna konbinatzen dituen nobela beltz hau: Palankako klub bateko prezio susmagarriak, trafikatzailen arteko istiluak, adin txikiko prostituta baten desagerpena, kaputxadun talde baten jipoi eta hilketak... Dena dela, nobelako ardatz nagusia Toure da, Bilboko San Frantzisko auzoan bizi den etorkin afrikarra. Ogibidea bilatzen behartuta, gezurrezko igarle gisa saiaturko da lehenik eta, pixkanaka, kasu eta proposamen bitxiak sortzen joango zaizkio.

**KKLRD**  
Zinc, Estricalla, Mostros, Humilitate, Josevisky eta Bonberena Ekin-tzak



Zinc, Estricalla, Mostros, Humilitate, Josevisky eta Bonberena Ekintzak-en arteko elkarlanean osatutako talde-lana. Musika eta Komikia nahastean dituen lana. Taldeko abesti bat eta Joseba Larretzek eginiko komikia EP+CD formatuan Bonberena Ekintzak-en eskutik.

**Ondoezik**  
Xirimiri taldea

Kameratoia, Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen Rallyko irabazlea. Lehiaketak gazte euskaldunen sormena bultzatu eta ekoizpen artistikoa gizarteratzea du helburu. "Ondoezik" bost egunetan grabatuta dago, 7 minutu eta 48 segundoko iraupena du. Kameratoia oinarrien arabera egina: gaia "Goitik behera" delakoa eta Gernikan grabatua.

# Ekainaren 15etik uztailaren 6ra bitarteko hitzordduak

## Antzerkia

**Lysistrata.** Kultur Etxeko Antzerki Tailerra. Ekainak 15, ostirala. 20.30. Tolosa, Leidor. 5 euro.  
**Leo Harlem.** Ekainak 16, larunbata. 19.30 eta 22.00. Tolosa, Leidor. 16, 20 eta 22 euro.

## Erakusketa

**Emarock.** Emakume musikarien argazki erakusketa. Ekainaren 16a bitartean. Tolosa, Arriburu Jauregia.  
**Kultur Lantegietako Artelanen Erakusketa.** Ekainak 19-uztailak 6. Ibarra, Benito Izagirre Kultur Etxea.

**Arandonos la piel.** Ekainaren 30a bitartean. Alegiako Kultur Etxean. Celia Muriasen argazkiak. Elikadura burujabetza eraikiz Ugandan.  
**Sua filmaren argazkiak.** Ekainaren 29a bitartean. Tolosa, Kultur Etxea.

## Festak

**Gazte Festak.** Ibarra. Ekainaren 15etatik 17ra bitartean. Gazte Asanbladak antolatuta.  
**Tolosako Bisiguaren Festa.** Ekainaren 15etik 17ra bitartean. Jaia Tolosako Txinparta elkartean izango da eta parrilero onenetakoek prestatutako bisigua dastatzeko aukera izango da. Bazkari eta afari erreserbak egiteko: 943 697 413 edo tour@tolosaldea.net.  
**San Pedro jaia.** Urkizu. Ekainak 29-uztailak 1.



12.00. Tolosa, Leidor. 3 euro. Izaskun Arriolaren Eskolako Jaia. Ekainak 22, ostirala. Tolosa, Leidor.  
**Kulturen arteko elkartrukea.** Ekainak 29-uztailak 7. Alurr Dantza Taldeak antolatuta.

## Tolosa Zero Zabor

**Ekainak 16, larunbata.** Haize errota eta kartulinen salmentan postua Tolosako Trianguloan. Ekainaren 17ko Donostiako mosaiko erraldoirako. Tolosa Zero Zabor.

## Kirola

**3x3 Tolosako XIV Street Basket Txapelketa.** Ekainak 16, larunbata. TAKE Saskibaloia Klubak antolatuta. Kuadrilen txapelketa Tolosako San Frantzisko pasealekuan (15.30-21.00) eta alebinak eta infantilak Tolosako Foruen etorbidean (09.00-13.30).

**Eskalada ikastaroa.** Ekainak 16 eta 17, larunbata eta igandea. Bi goizeko ikastaroa. Ordutegia taldearen arabera. Gutxienez 3 laguneko taldea. Abaltzisketa, Txindokiko Itzala.

**Txindoki Bertikala.** Ekainak 17, igandea. Abaltzisketa, Larraitz.  
**Bedaioiko VI mendi eta bizikleta martxa.** Ekainak 17, igandea.  
**Arroil jaitsiera.** Anitch - Lapasasa. Ekainak 30-uztailak 1. Oargi Mendi Elkarteak antolatuta.  
**X. Langostino Moto Festa.** Ekainak 30-uztailak 1. Ibarra.

## Dantza

**Kultur Etxeko Dantza Tailerra.** Ekainak 17, igandea.

## Hitzaldia

**Tolosaldeko Baliabideak Ezagutu.** Ekainak 19, asteartea. Tolosa, Kultur Etxea, 10.00. Tolosaldea Garatzenek antolatuta. Izena ematea: Tolosaldea Garatzen, 943654501 edo inmigratzioa@tolosaldea.net.  
**Gazteentzat aholkularitza zerbitzua.** Ekainak 22, ostirala. Albiztur, udaletxeko hitzaldi aretoa, 18.00. Moderratzailea: Maider Zaldua, Psikologoa eta sexologoa.

## Tolosa kantari

**Tolosa Kantari.** Ekainak 23, larunbata. Tolosa, Agirre doktorearen plaza (Tontokale), 12.00.

## Amarozko antzerki astea

**Neskeraz.** Ekainak 26, asteartea. 22.15. Pailaztanda Clown Taldea.  
**Txotxongilo tailerra.** Ekainak 27, asteazkena. 19.00. Intujai teatro.  
**Zoriontasuna, Oh fortuna eta Al otro lado del espejo.** Ekainak 27, asteazkena. 22.15. Tic-Tac eta Vantare.  
**Karmakros kontuketan.** Ekainak 28, osteguna. 19.00. Karmakros.  
**Kataklown.** Ekainak 29, ostirala. 18.30. Sambhu.  
**Sin remite.** Ekainak 30, larunbata. 17.00. Los Kikolas.  
**Magia de cerca.** Uztailak 1, igandea. 17.00. Mago Diego eta Jon Zabal.



## Zinea

**Sua filmaren estreinaldia.** Ekainak 29, ostirala. 22.00. Tolosa, Leidor. Eneko Aritzaren Lagunak.

## Manifestazioa

**Tolosaldeko Osasun Publikoaren alde.** Ekainak 30, larunbata. Tolosa, Trianguloa, 12.00. TOPAK antolatuta.

## Langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Goi eta erdi mailako heziketa zikloak  
Matrikula epea: uztailaren 5etik 11ra.

Lanerako prestakuntza:  
Ezagutu ezazu gure eskaintza irekia.

Bestelako ikastaroak uda bitartean:

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Ekintzaile berrientzat enpresa kudeaketa ikastaroa	2012.06.18	50
Laneko segurtasuna: lehen sorospenak iristen zailak diren eremuetan	2012.06.19	25
Tolosaldeko ballabideak ezagutu	2012.06.19	2
Ostalaritza-merkataritzako langileentzat euskara ikastaroa	2012.06.28	30

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?  
Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.  
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa  
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 15</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 20</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Astelehena, 25</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
<b>Larunbata, 16</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Osteguna, 21</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteartea, 26</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra
<b>Igandea, 17</b> Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	<b>Ostirala, 22</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 27</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 18</b> Morant, R (Zaballarreta, 1) Tolosa	<b>Larunbata, 23</b> Etxebeste J.M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Osteguna, 28</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
<b>Asteartea, 19</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Igandea, 24</b> Olarreaga M. (Martin Jose Iraola, 10) Tolosa	<b>Ostirala, 29</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



**SANTA  
LUZIA  
GARAJEA**

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa

## Muxutruk

### Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protiesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 943 119839

### Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegiatan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukualdea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukualdea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

• Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

### Salgai

• Akazia hesolak saltzen dira, barrutiak ixteko. 646 52 47 96 (Peio)

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

# Horoskopoa

Ekainaren 15etik uztailaren 6ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21  
Proiektu berriak zure ikusmoldea zabalduko dute. Harreman pertsonaletan esperientzia bereziak sortuko dira. Berrikuntzak eta eraberritzeak garrantzi berezia izango dute. Negoziaketetarako momentu aproposa da.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21  
Zenbait egoeren azkartasunak proiektuak errealitate bihurtzea ekarriko du, benetan desio duzun horrengatik borrokatzea unea iritsi da. Helburua praktikotasuna duten ideiak garatzea izango da.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21  
Maitasunerako une ezin aproposagoan murgildurik zaude, mugimendu bat baino gehiago emango da. Hala ere, denbora behar izango duzu konpromisoak nola ezarri zehazteko.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22  
Barne momentu oso berezia bizitzen ari zara; orain arte egindakoaren balorazioan emango duzu denbora. Intuizioz jokatu duzu eta emozioek eginbeharrekoa aginduko dizute. Profesionalki momentu garrantzitsuak biziko dituzu.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22  
Mundu ludikoaren harremana duenak zorientasuna eskainiko dizu. Harreman berriak sortzen ahaleginduko zara. Behar duzun garaian lagun horrekin harremanetan jartzeak onura baino ez dizu ekarriko.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22  
Aberastasunari dagokionez, zure aliatua lagun talde barruan kokatzen da. Garai honetan lan eta gizarte kontuetan murgildurik egongo zara. Komunikazioak ordea, buruhauste bat baino gehiago ekarriko dizu.



## libra

Irailak 23-Urriak 22  
Energia mentalaz gainezka egongo zara, honek ikasketetan laguntza emango dizu. Bizitzaz duzun filosofiaz hausnartzeko garaia ere iritsi zaizu. Aldatu beharreko elementu horietan fokaturiko duzu atentzia.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22  
Bikotearekiko ulermen maila handitu beharko zenuke, horretarako zenbait jarrera aldatzea beharrezkoa izango da. Iraganean gertatutako zerbaitek, oraindik orain, bere eragina izaten jarraituko du.



## sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21  
Bikoteari babesa emateak zein interes komunak sortzeak indarra emango dizu. Garai ona da proiektuak elkarrekin martxan jartzeko, ondorioak positiboak izango dira. Umoreak egoera batean baino gehiagotan lagunduko dizu.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20  
Zure inguruan gertatzen ari denaz ohartu beharko zenuke. Berri onak jasoko dituzu eta horrek zure jokaerengan bere eragina ere izango du. Alor profesionalen aldatetak aurreikusten dira.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20  
Irudimena lagun, esperientzia sentimental bereziak bizi izango dituzu. Ametsetarako une egokia da. Hala ere, ametsetatik abiatuz errealitatera iristeko bidea zehaztu beharko zenuke.



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20  
Komunikaziorako duzun gaitasuna handitu egingo da, indarra eskuratuko duzu espresatzeko garaian. Garai bateko gaizki ulertuak desagertu egingo dira. Aspaldi ikusi gabeko zenbait pertsonen elkartzeko parada izango duzu.

## Publierreportaia

# Bainujantzi aukera zabala eta eksklusiboa Nerea Lentzerian

Udararen etorrerarekin batera, Tolosako Alde Zaharreko Erre-mentari kaleko Nerea Lentzeriak emakumezko zein gizonezkoen zuzenduriko bainujantzi aukera zabala eskaintzen du.

Garai honetan, Nerea Lentzeriako apal eta eskegailuak bainujantziez horniturik ageri dira. Emakumeei zuzenduriko bikini eta bainujantziak, kolore aldetik, zuriak, beltzak eta turkesak gagusira dira, "konbinatzeko errazak", zehazten du Eguzki Tobesek, dendako gidariak. Hondartza zein igerilekuetan eroso sentitzeko gainera, osagarri aukera anitza eskaintzen du Tolosan erreferentzi gune den denda honek: blusa-pareoak (lihozkoak, kotoizkoak, gardenak...), txankletak, sandaliak, saskiak...

Gizonei begira ordea, aurreko urtetan baino aukera anitza eta zabalagoa dago. Izan ere, Eguzki esan bezala, "bezeroak geroz eta gauza ezberdinagoak eskatzen ditu". Eskakizun horri erantzuna emateko, "estapanatu bereziak, koadroak, kolore eta ehun berriak ekarri ditugu". Emakumezko zein gizonezkoen kasuan, kalitatea eta eksklusibitatea da Nerea Lentzeriak eskaintzen duena: "modelo bakoitzetik 3-4 prenda ekartzen ditut", dio Eguzki.

### Barruko arropak kanpoan eraginez

Garai honetan, arropa arinak erabiltzearekin batera, barruko arropak ere garrantzi berezia eskuratzen du. Horretan, Eguzki aditua da, bezero bakoitzari arreta zuzena eta profesionala eskainiz, bezero bakoitzari eta une bakoitzari dagokiona aukeratzen lagunduz.

Urteko produktua, faxak direla azpimarratzen du Eguzki. Zeremonia ezberdinei begira, soineko bereziekin figura edertu asmoz, "berriz ere faxen salmenta fuertea izaten ari da". Egun, telebistako iragarkietan aurpegi ezagunak ikusten ditugu faxak iragarri: "arropa hobeto asentatzen da, figura politagoa eta jantziagoa lortzen da", dio Eguzki.

### 50 urte

Nerea Lentzeriak 50 urte bete ditu eta Eguzki ospakizuna "jendearen kariñoaz eta nostalgiaz" bizi du. Hala ere, denda aldaketa garaia iritsi dela antzematen da: "generazio aldaketa dago eta produktu berri, ezberdin eta ausartagoak ekartzen ditut".

Beste aldaketetako bat, arropa kalera ateratzearena da, "Europar ikusten nuena, nireira ekartzeko aukera izan dudanean martxan jarri dut". Bezeroengandik harrera ona jaso du proposamen honek eta denda kokatzen ere laguntzen duenaren ustekoa da Eguzki.

Eskaparatea Nerea Lentzeriako produktu anitzen erakusleho bilakatzen da, hiru astez behin produktu berriak azalduz. Bezeroak erakuslehoan begirada bota, gustuko produktuak aurkitu eta atea zeharkatzea besterik ez du Eguzkiren atentzio profesionala jasotzeko.

Errementari kalea, Tolosa  
Tel: 943 671 630



Españako zuloa!

Norbaitek tapatzen asmatu beharko dik!

Komikia: Joseba Antxustegiartxe



# Aranguren

[www.arangurentolosa.com](http://www.arangurentolosa.com)

Gizonezkoa: Korreo, 4 - Tel.: 943 670 525 • Emakumezkoa: Korreo, 1 - Tel.: 943 673 311



## IXABEL

Kide ugari dituzten familientzako  
%15eko deskontua

Lurpe, 10 • 20400 Tolosa • Telef. 943 670 277



## ANOETA KARROZERIA

TXAPA ETA PINTURA  
LEHORKETA INFRAGORRIZ

Bentaldea Industrialdea  
20270 Anoeta  
Tel.: 943 65 13 08 - Faxes. 943 65 25 06  
[anoeta@carroceriasanoeta.com](mailto:anoeta@carroceriasanoeta.com)

EZIN ARDURATU AHAL IZATEAGATIK, INPRENTA DIGITALA  
ESKUALDATZEN DA GOIERRIN

[WWW.KOLORE.ES](http://WWW.KOLORE.ES)  
636 628 439

kolor   
inprimategia